



1. HELBURUAK

IRITZIA IDATZIZ... EMATEN IKASI

Batxilergoko aukerako ikasgaien curriculum garapenari buruzko AGINDUAK (2010eko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Batxilergoko aukerako ikasgaiak arautzen dituenak) XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA ETA ESPAINIAR LITERATURA SARRERAⁿ dioenez:

"Prozedurazko edukiak hartu dira programazioak antolatzeko ardatz gisa".

Beste alde batetik, DBH2ko Ebaluazio diagnostikoetan azpimarratzen da, bai euskaraz eta baita gazteleraz ere, hizkuntza-gaitasunen ebaluaketa egitean

"Idazmena da zailtasun gehien dituen dimentsioa; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da".¹

Horiek horrela, eta ikusiz *Batxilergoko curriculumaren garapenean* "Irakaskuntza-Ikaskuntza prozesua hiru oinarriko jardura hauen inguruan egituretako bat lanen ahozko eta idatzizko iruzkinak egitea" (203 or.) dela, mintegi hauen helburua da ikasleei idatzaraziz beste bi oinarriak ere sendotzea, alegia, "literatura-testuak irakurriko dira eta iruzkinak egingo dira" (203 or.).

Testu-motak genero eta edukien arabera sailkatzen dira. Sailkapen horiek, gainera, ezin dira izan definitiboak, ikertzen dutena etengabe aldatzen ari den heinean.

Iritzia emateko modu eta genero askoren lekukotza jaso daiteke literaturaren eta pentsamenduaren historian (iritzi-artikuluak, zutabeak, saiakerak, aforismoak, gutunak...). Ikasleei eskatu ohi zaiena, gehienetan, batean eta bestean aurkitutako materialak laburtzea eta, izatekotan, horiei buruzko iritzi bat emateko eskatu ohi zaio. Mundu akademikoan, ordea, ikasleari iritzia emateko eskatzen zaionerako argudioak eta ideiak jasota ditu. Egoera horretan, dagoeneko ikasita behar dituen edukien azalpen egokiaz gain, eskatu ohi zaie iritzi pertsonal bat ematea ere. Baina, ia beti zail gertatzen zaie, aldezturik, ez direlako iritziak borobiltzeko mekanismoez jabetu.

Mintegi honetan ikasleek zortzi testu labur sortzeaz gain (luzeenak 2000-2500 karakterekoak) prozesu osoaz hausnartzen ikasiko dute. Gutxieneko zortzi testu hauek idatzi eta zuzendu ondoren eta antologia osatu eta gero, Batxilergo mailan eta gerora unibertsitatean beharrezko izango duten gaitasunetan trebatuko dira (sormena, arrazoimena eta adierazpena landuz).

Testuak sortzeko eta testu horiek norberak zuzentzeko, asko erraztuko dien arau eta ariketa batzuk eman nahi dizkiegu ikasleei. Guztia modu praktikoan, buruan eskema erraz bat hartuta.

IDAZTEN ERAKUTSI edo idazten ikastarazi

Eta helburu zehatzak planteatzerakoan kontuan hartzen da:

¹http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43573/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_curricul/adjuntos/15_ebal_diagnostikoa_310/310018e_Pub_ISEI_Informe_2011_resultados_ESO2_eusk.pdf



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

- Ikasleek testu laburrak sortzen eta idazten ikasi behar dutela.
- Ikasleek testu laburrak zuzentzen ikasi behar dutela.
- Ikasleek besteen testuak baloratzen ikasi behar dutela.
- Ikasleek hainbat testuren eredugarritasuna arrazoitzen ikasi behar dutela.

1.1. CURRICULUM DISEINU ETA IKASKETA-PLANEKIKO LOTURA

Helburuak: zer helburu lortu nahi diren ikasmaterial horrekin eta nori zuzendua dagoen, beti ere oinarrizko curriculum-diseinuei, curriculumak garatzeko dekretuei edota indarrean dauden ikasketa-planei erreferentzia eginez.

EHAAn 2010eko irailaren 10ean argitaratutako Batxilergoko aukerako ikasgaiak Euskal Erkidegoan, Aginduan zehaztutakoa kontuan IRITZIA EMAN Mintegiak, alegia, "XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA ETA ESPAINIAR LITERATURA SARRERA" hautazko ikasgaiaren helburuei erreparatuz, eta baita Oinarrizko Gaitasunen aginduari ere.

1.2. LANDUKO DIREN OINARRIZKO GAITASUNAK

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna: ekintza eta jarduera guztietan baina batez ere etxeko lanak idaztean eta zuzentzean.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: ekintza eta jarduera guztietan, baina batez ere:
 - Talde-zuzenketa metodologia aplikatzerakoan.
 - Iritziak ematerakoan iritzi horien egokitasun-desegokitasunari buruzko besteen iritziak jasotzean.
 - Idazketan formen erabilera zaintzean.
- Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna:
 - Mintegi honetan erabiliko den material guztia jasotzeko orduan.
 - Etxeko lanak plataformara igotzeko orduan.
 - Gaien trataerarako informazioa bilatzerakoan (saio guztietan).
 - Antologia osatzeko jarduera guztietan.
 - Bibliografia eta estekez baliatuz gomendatutako orrietan.
- Ikasten Ikasteko gaitasuna:
 - Ariketak etxean lantzerakoan, eta haiek burutzeko mintegi honetako materiala erabiltzerako orduan (glosategia, antologia).
 - Norbere lanak zuzentzen ikasteko saio bakoitzaren zuzenketa-txantiloia erabiltzerakoan.
 - Autoebaluazio eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzean.
 - Argudioak eta iritziak garatzeko teknikak erabiltzean.
- Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna:
 - Etxeko lanak egiteko ezintasunei aurre egiteko estrategiak garatzeko orduan.
 - Idazketa eta zuzenketa lanaren denboralizazioa lantzean.
 - Norbere lanen bidez antologia osatuz, edo lan horiek nolabait argitaratzeko estrategiak sortuz.
- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna:
 - Saio bakoitzerako proposatutako etxeko lanak egitean.
 - Gelakideen lanak irakurtzerakoan.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

- Antologiako testuak irakurtzerakoan.
- Antologoa osatzeko testu-eredugarrien ezaugarriak aztertzerakoan.

1.3.METODOLOGIAZKO EKARPENAK

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO IRAKASGAIK EGITEN DITUEN EKARPEN HAUEKIN BAT EGITEN DU METODOLOGIA HONEK ²

- Giza eta Gizarte Zientziak modalitatearekin zerikusi zuzena duten oinarrizko gaitasunak lantzen ditu bereziki.
- Literatura-testuekin lan egitea funtsezkoa da hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko, literatura-testuak ulertzen laguntzen duelako, eta literatura-jakintza zabaltzeak irakasgai hau egiten duten ikasleen artean beren kasa irakurtzeko ohitura sendotzen duelako. Bestalde, beste esparru batzuetara ere eraman daiteke irakasgai honi lotutako ikaskuntza gehiena eta, hortaz, denen azpian dagoen hizkuntza-gaitasuna garatzen laguntzen du irakasgai honek.
- Informazioaren trataerarako gaitasuna eta gaitasun digitala sendotzen ere laguntzen digu irakasgai honek, helburu baititu, besteak beste, irakasgairako garrantzitsua den informazioa bilatu, aukeratu eta lantzeko gaitasunak indartzea, eta norberaren testuak egiteko eta berrikusteko euskarri elektronikoen erabilera sustatzea.
- Erantzukizun handia du ezagutza-hizkuntzazko trebetasunak garatzeko garaian. Gaitasun horiek lantzeak laguntzen du norberaren ikaskuntza antolatzen, gogoeta egiten eta elkarreraginaren bidez literaturari buruzko ezagutzak modu partekatuan osatzen. Horrek guztiak lotura zuzena du ikasten ikasteko oinarrizko gaitasunarekin.
- Irakasgai lantzen diren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan norberaren jarduna aztertzen, antolatzen eta bideratzen ikasten dute ikasleek, planak prestatzen dituzte eta erabakiak hartzeko prozesuak osatzen dituzte, baita komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren estrategiak erabiltzen ikasi ere. Beraz, irakasgai honek norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak garatzen laguntzen du, halaber.
- Irakasgai hau lantzeko oso garrantzitsua da ikasgelan parte hartzea, pertsonen arteko harremanak garatzea, lankidetzan jardunez ikastea eta esanahiak negoziatzea. Jarduera horiek guztiak daude giza harremanen oinarrian, eta hizkuntzaren eta komunikazioaren arloko trebetasun berezi batzuk erabiltzen jakitea eskatzen dute. Gainera, kultura-testuinguru gertukoenerako literatura-testuak denboran eta espazioan ezagutzea bitarteko ezin hobea da testuinguru kultural eta historiko jakin baten baitan norberaren nortasuna eratzeko; eta hizkuntza eta kultura kolektibo batean parte hartzen laguntzen dute. Gizarte eta hiritar-gaitasuna garatzen laguntzen du horrek guztiak.

² Batxilergoko aukerako ikasgaien curriculum garapenari buruzko AGINDUA (, 2010eko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Batxilergoko aukerako ikasgaiak arautzen dituenak) . Aurrerantzean EHHA, 2010-9-10 aipatuko dena.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

1.4. LANDUKO DIREN EDUKIAK³

Gerra osteko eta bereziki azken hogeita hamar urteetan iritzia emateko orduan erabili diren euskal testuen ezagutza anitza (saiakera, zutabe, kazetaritza, literatura-kritika, gutuneria, aforismoak...) irakurri eta aztertuko dira, eta alde horretatik, arestian aipatutako edukietatik 1, 2, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 14 puntuetan garatzen diren ikasgaiekin izango dute harreman zehatza, nahiz eta mintegi honen helburua ez den izango eduki horiei buruzko azalpen-testuak ematea, baizik eta eduki horiek azaltzen dituzten testuetatik abiatu eta 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29 puntuetan agertzen diren edukietara iristeko ikas-bideak lantzea. Hain zuzen ere:

23. Literatura garaikidea ezagutzeko jakin mina eta interesa.

24.- Literatura-testuak irakurtzea eta ulertzea gure burua eta gure kultura aberasteko iturria, jarduera atsegina eta errealitatea ulertzeko bitartekoa dela ikustea.

25.- Literatura-lanak hautatzeko eta balioesteko irizpide propioak garatzeko jarrera kritikoa.

26.- Beste pertsonak dituzten gureez bestelako iritzien aurrean errespetua eta jarrera irekia erakustea.

27.- Talde-lanerako arauak errespetatzea eta lankidetzaren balioestea.

28.- Gure lanen aurrean jarrera kritikoa izatea, haiek hobetzeko.

29.- Jarrera kritikoa eta zorrotza izatea informazio-iturriak sinesgarriak diren ala ez erabakitzean, eta norberaren testuak egiteko besteek sortutako lanak erabiltzean.

³ "Oinarrizko curriculum-diseinuko, curriculum-a garatzeko dekretuetako edota ikasketa-planetakoz zein edukirekin duen harremana, edota zein eduki landu nahi dituen" Aurrerantzean EHHA, 2010-9-10, 207-208. or.




2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA⁴

2.1. TESTU LABURRAK SORTZEN ETA IDAZTEN IKASI

Etxeko lanak: Ikasleak saio bakoitzaren ondoren, ordubete–bi ordutan burutu ahal izango duen ariketa edo jardueraren bat izango du. Ariketa edo jarduera hori burutzeaz gain plataformara (moodle bidez edo e-postaz ere berdin du):

- Igo beharko ditu bere lanak,
- Besteen lanak irakurri egin beharko ditu.

2.2. TESTU LABURRAK ZUZENTZEN IKESkolako saioak lehen burututako ariketetatik sortutako teoria lantzeko eta zuzentzen ikasteko daude pentsatuak: **ebaluatzen eta zuzentzen ikasteko**. Ikasleei etxean eta bakarrik idaztea aholkatzen zaie, baina ikasleek gelan zuzendu behar dituzte elkarren lanak irakaslearekin batera. Gelako lanean bereziki landuko dira, ebaluazio-gaitasuna eta teorizazio-gaitasuna.



Idatzi ondoren ikasleak atzetik aurrera hasi behar du zuzentzen, irakurlearengan espero duen eraginaren dimentsioaz jabetzeko. Eta horretarako, lanari buruzko ikuspegi orokorretik testuaren zehaztasunera bitarteko joan-etorrian trebatuko da.

Honek esan nahi du ebaluazioa ez dagoela ariketa bakoitzaren amaieran bakarrik, baizik eta prozesu osoan aritu behar duela

ikasleak bere burua ebaluatzen, ebaluatzea delarik prozesu honetan, baita, sormen eta garapen tresna bat, urrats honetan eta besteetan ikusiko den bezala.

2.3. ELKARREKIN BESTEEN TESTUAK BALORATZEN IKASI

- Ikasleek saio bakoitzaren hasieran jasoko dute irakaslearengandik saio bakoitzari dagokion txostena. Saio amaieran, irakasleak hala baderitzo, banatu edo zabaldu ahal izango du.
- Akatsek irakurlerian sortzen duten ezerosotasunaz jabetuko dira, hizkuntza zehaztasunez eta ñabardurez erabiltzearen garrantziaz.
- **Elkarren lanak zuzentzen ikasteko**, saio batetik bestera irakasleak lau-bost ariketa izango ditu eskura. Bere esku dago (taldearen neurriaren arabera) bakarra aukeratzea edo azpi-taldeak egin eta talde bakoitzari ariketa bat ematea.

⁴ c) Noiz eta nola erabili: ikasmaterialaren erabileraren inguruko metodologia kontuak. d) Planteamendu didaktikoaren antolaketa (jarduerak, denboralizazioa eta baliabideak).



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

- Elkarren lanak zuzentzeko ikasleen **zuzenketa txantiloia** izango dute.
- **Hizkuntza-zuzentasun maila** ere ezin da beti gainditutzat eman. Zuzentasun ortografiko eta gramatikala egintzat ematen da, baina ez hainbeste gramatika testualaren edota erretorikaren ezagupidea. Zortzi saio hauen helburua, hala ere, ez da teoriarekin ondo atxikitzen den adibidetegi bat eskaintzea, baizik eta ikasleak idatzi behar duen heinean, berez, hiztun eta irakurle alfabetatu gisara ezagun dituen baliabideei buruzko hausnarketa bat egitea. Hori dela eta gai bakoitzaren inguruan **Glosategi** zabala eskaintzen da, maila teorikoan ematen diren azalpenak sorlanerako eraginkorrago izan daitezen. Lehen saioa amaitu orduko gai guztien Glosategia zabalik izango dute.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

2.4. IKASLEEK TESTU EREDUGARRIAK EZAGUTZEN IKASI BEHAR DUTE hizkuntzaren dimentsioaz hausnartuz, eta curriculumaren euskal dimentsioan murgilduz.

Besteen akatsak errazago ikusten direnez, akats horiek zuzentzen ikasiko dute ikasleek. Baina horrekin batera baita irakurketa prozesu mentalean sortzen duen eragozpenaz jabetzen ere.

Saio bakoitzeko ebaluazio bakoitzaren ondoren gustatu zaiena eta gustatu ez zaiena azpimarratzean, hizkuntzaren erabileraz jabetuko dira. Glosategiaren bidez ikasiko dute hainbat kontzeptuz hausnartzen (aditzaren erabilera, hitzen ordena, esaldi luze-laburren egokitasuna).

Testuak sortzea norbere hizkuntza-gaitasuna neurtzeko bide eraginkorrenetakoa da, bai ezaguera mailan eta baita baliabide mailan ere. Ikasleak ikasteko, hizkuntzaz etengabe baliatzen diren arren euren testuak sortzeko gaitasuna ez dute ekoizpen horren azterketa eta zuzenketa modu jarrai batean landu izan.

Iritzia emateko diren generoz osatutako **antologia** bat ere izango dute ikasleek nahi dutenean irakurtzeko, baina jarduera interesgarriak dira ondorengo bi hauek:

- Ikastaroan ikasleek sortutako lan interesgarrien antologia bat egitea taldean.
- Ikastaroak iraun duen bitartean ikasleek irakurri dituzten iritzi interesgarriekin antologia bat osatzea (euskarazkoak edota euskaratuak).



3. ESKOLEN METODOLOGIA: DENBORALIZAZIOA

Metodologia hau erabiltzen du Bergarako IDAZLE ESKOLAKo graduondokoak azken hamaika urteetan bai graduondokoan eta baita tailer eta moduluetan ere. Eta beraz esperimantatua dago.

Ikastaro edo mintegia zortzi saiotan burutuko da, eta saio bakoitza ordu eta erdikoa izango da. Gutxi gorabehera hiruhilabeteko batean.

Ez da oso ordutegi ohikoa, baina ikasleek beraiek idatzi dutena eta besteek idatzi dutena zuzentzen eta beren hizkuntza-gaitasunak hobetzen eta sormena pizten ikas dezaten, beharrezkoa da ordubetez gorako saioak izatea. Ordu eta erdirekin esperimantatutako materiala da. Aldi berean, saioa luzatzeko adina material ere eskaintzen da:

“Aukerako ikasgaiek Batxilergoko gaitasunak garatzen lagundu behar dute proiektu, praktika eta banakakoak edo taldekoak diren lan monografikoak, ikerketa-lanak, diziplina artekoak edo antzekoak diren lanetan oinarritutako hezkuntza-metodologia desberdina erabiliz eta, hala, ikasleak goi-mailako hezkuntzan eskatzen diren gaitasun metodologikoak eskuratzeko prestatuz. Ikastetxeek beren diziplina arteko lan-proiektuak ere”.⁵

Espazioa ere kontuan hartu behar da. Talde-lanak eta elkarrizketak bere espazioa behar dutenez, egokia da mintegi hau emateko erabiltzea liburutegi bat edo espazio zabal bat, eta ahal dela, IKTrako baliabideak dituen.

Aukera hau ere bat dator Aginduak dioenarekin:

“Ikasgelaz gain, beste esparru batzuk ere erabili behar dira irakasgaiko berezko ikaskuntza-jarduerak egiteko, bai ikastetxe barrukoak (liburutegia, informatika-gela, ikus-entzunezkoen gela...) bai ikastetxetik kanpokoak (antzerki-emankizunetara joatea, udal-liburutegia, hitzaldietara joatea eta abar)”.⁶

1.- 0-0:30: **AZALPEN TEORIKOAK**

Lehen 30 minutuetan irakasleak aurreko astean jarritako lanaren helburua deskribatuko du (eta ikasleek egindako lanetan oinarrituko da helburu horiek nola bete diren azaltzeko) eta ikasleen etxeko lanetako adibidez hornituta emango du teoria, ikasleen lanetan aurkitu dituen alde positiboak azpimarratuz, eta hain positibo izan ez diren adibideei buruz galdera edo zeharkako azalpenak eman.

2.- 0:30-1:15: **JARDUERAK**

- Ikasleek irakasleak emandako zehaztapenetatik abiatu eta egin duten lanean izan dituzten zailtasunetatik abiatuta baloratuko dute beren lana.
- Taldeko zuzenketak egingo dira, binaka edo asko jota lau-bosten artean.
- Talde bakoitzak adieraziko du amaieran aztertutako ariketetan zer ikusi duten ondo eta zer ez.

⁵ EHHA.2010-9-10,175.zenb. 1. or.

⁶ Aip.ob. 204. or.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

3.- 1:15-1:30: **ONDORIOAK ETA ARIKETA BERRIAK**

- Irakasleak etxeko lana emango du, beharrezko ikusten dituen argibideak emanez, baina ariketari buruz interpretazio-askatasuna utziz.
- Gogoratuko du astebeteko epean noizko jaso eta banatu behar dituzten lanak, beste ikaskideei ere irakurtzeko denbora emateko (asteko hurrengo lehen hiru egun, e.b.).
- Asteko azken hiru egunetan Glosategia, azken saioko teoria edota antologia irakurtzea gomendatuko die.

Hala ere, ikasleren batentzat ariketa hori ez bada motibagarria jakin behar du agindutako lana (luzeran behintzat) bete behar duela eta entregatu egin behar duela. Orduan berak idatz dezake nahi duena, baina idaztea nahitaezkoa da.

Garrantzi handikoa da eskema honi ahalik eta estuen jarraitzea, ikasle-irakasle arteko hitzarmen inplizitu bat (eta nahi izanez gero esplizitatu liteke) garatzen duelako. Hitzarmen horrek ondorengo harreman-modu hau garatzen du.

3.2. IKASLE-IRAKASLEAREN ARTEKO TRATUA: ZER ETA NOLA ZUZENDU

Zer zuzendu behar den planteatzerakoan galdera ohikoa da zertaraino ekidin daitekeen zuzentzailearen gustu pertsonala edo nola berma daitekeen zuzenketaren objektibotasuna.

Saio guzti hauetan zuzenketa txantiloiak erabiliko ditugu norbere lanak eta besteen lanak zuzentzeko. Besteen lanak zuzentzen ikastea eta besteen zuzenketak onartzen ikastea garrantzia handikoak dira norbere lanen zuzenketarako. Talde-zuzenketa dinamikak erakutsi ohi du akatsez eta ulertzen zailak diren gunez adostasuna lortzea nahiko erraza izaten dela.

Objektibotasun ezaren aldarrikapenaren azpian egon daiteke zuzendua ez izateko erabaki bat, eta zuzenketa zorrotz baten premiaren azpian, idazleak besteen iradokizunei garrantzirik ez emateko joera bat ere.

Nola zuzendu?

Idazketan aurreratzeko beharrezkoa da zuzentzea. Nork eta nola zuzentzen du?

Argi dago ikasleen idazlanak irakasleak zuzendu behar dituela. Nola zuzendu behar du irakasleak?

Txarto dagoen guztia ezin da zuzendu, komenigarria da ariketa bakoitzean arlo bati heltzea. Aldi berean, **alde positiboak azpimarratu edo goraipatu** egin behar dira.

Ikasleek beraien artean ere zuzenketak egin behar dituzte. Nola? Era ezberdinetan egin ditzakete:

Bikoteka: ikasleek beraien idazlanak elkartrukutzen dituzte, zuzendu egiten dituzte eta ondoren beraiak egingo lituzketen aldaketak azaltzen dituzte. Bakoitzak erabakiko du bikotekideak egindako zuzenketak onartu ala ez.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

Testuak taldearen aurrean aurkeztzen dira eta entzuleek komentarioak egin ditzakete.

Txandaka: ikasle batzuek besteen lanak zuzentzen dituzte etxean edo klasean bertan.

Ikasleek idazten duten bitartean, irakasleak testuak irakurri egiten ditu eta zuzen ez dagoena azpimarratu egiten dio zuzen dezan.

Garrantzitsua da alaitasun giroa, umore ona eta batez ere lehen unean kritikak saihestea. Hasiera batean sormena bultzatzea izan behar da helburu, ideiak plazaratzea. Hautespena geroago etorriko da.

Aurreratzen ari garela sentitzearen beharrizana

Denok daukagu aurrerapenak ikusteko beharrizana:

Ikasleek zirriborroak gorde ditzatela. Irakurtzeko, aztertzeko aukera ematen dute. Idazle ospetsuen zirriborroak edo zuzendutako lanak eraman gelara eta erakutsi. Azken produktura iritsi arte gertatutako bilakaera ikus daiteke.

Irakasleok gure zirriborroak klasera eraman. Sarritan ikasleak harritu egiten dira behin betiko testuak aurkeztu aurretik maisuak egin behar izan dituen zuzenketak ikusterakoan.

3.3. IKASLEAREKIKO GERTUTASUNA

Arestian aipatutakoaren ondorioz, ez ahaztu ikasle eta irakaslearen arteko tratua auresuposizio hauetan oinarritzen dela:

IKASLE-IDAZLEGAIK

- Badaki noiz baduen zerbaiti buruzko iritzi osatu xamar bat eta noiz ez.
- Iritzi osatu samar bat duenean egoki eman behar du, alegia, irakurleak ulertzeko moduan eta irakurleak bere iritziaren alde jartzeko moduan.
- Iritzia emateko aski argudio ez duenean argudioak bilatzea du lehen lana.
- Nahi duenez eta nahi duen neurrian eta estiloan aritzeko eskubidea du.

IKASLE-IRAKURLEAK

- Emandako iritzi bat, osatuena denean ere, ez dago sekula amaituta. Argudioak, hizkuntzak, argudiaketa planteatzeko estrategiak alda daitezke. Irakurleekin partekatzea aberasgarria da.
- Irakurleek badakite irakurri dutena gustatzen zaien ala ez. Ikasle-Idazleak galdetu egin behar die zergatia, idazten ikasteko.

IRAKASLE-IRAKURLEAK

- Irakurle arretatsua izan behar du.
- Zuzentzaile nagusia da.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

- Ikasle bakoitzak egin duen lanean azpimarragarri den zerbait aurkitu behar du beti, gaizki eginda dagoena zuzentzeko.
- Egiten duen zuzenketa ezin da sekula izan partikularra, nominatiboa... Gaizki dagoena okerraren azalpen orokorraren baitan jarri behar du, orokortu egin behar du.
- Irakasleak asmatu egin behar du gai berriak sortzen ikasle batzuen eta beste batzuen lanetako esaldi, modismo edo zerbait besteek erabiltzeko moduan plazaratuz.
- Ikasleak nahi duenaz iritzia emateko eskubidea du. Heldu gisara tratatu ezean ez du ikasiko iritziak ematen.



5. MATERIALAREN DESKRIBAPENA

Batxilergo mailetako ikasleek honetaz eta hartaz iritzia emateko duten premia abiatzen da materiala, eta hainbat ikasgairi begira eta hainbat hauta-frogari begira (selektibitatea, hizkuntz profilen bat...) epe laburrean garatu behar dituzten gaitasunei erreparatuz egina dago material osoa.

Iritziak eman, kontrastatu eta arrazoitzeko bideak jartzen ditu aukeran. Iritzi guztiak posible izan daitezen ez da abiatzen iritzien eta argudioen sailkapena materialetik (alegia, ez edukietatik eta ez eta argudio tipologietatik ere), baizik eta denok egin dezakegun jarduera bat modu egokian egiteko baliabide formaletatik, baliabide erretorikotik eta linguistikoetatik.

5.1. OSAGAIAK

5.1.1. SAIO BAKOITZEKO MATERIALA

TXOSTENA

Irakasleak teoria ezaguna duenez, ikasleei idatzarazteko pentsatua dago, eta ez hainbeste ikasleei edukiak emateko. Eduki horietaz jabetuak egon beharko lukete ikasleek behin Batxilergora iritsiz gero. Hala ere, ikasleen norabide-aniztasunaren aurrean gai bakoitzari buruzko argibide gehiago, lehen saioaz geroztik zabalik izango duten **glosategian** izango da.

Materiala, alde horretatik, urteetan zehar eta modu sakabanatuan ikasleek jasoa beharko zuketean informazioaz baliatzen da, baina modu praktikoan, didaktikoan eta erabilkorrean.

Glosategian zabalago ematen diren hitz-gakoak letra lodiagoz markatuak izango dira txostenean.

Taldearen arabera, irakasleek jarri ahal izango dituzte txostenak ikasleen eskura, baina beti zegozkien ariketak egin ondoren, ikasleak bere gabeziak esperimentatu eta ezagutu ditzan.

ARIKETAK. IKASLEAREN ESKU IZANGO DIRA HASIERATIK

Ikasleek etxean egiteko prestatuak. Saio bakoitzerako bost-sei ariketa ezberdin proposatzen dira txostenean landutako hainbat alderdiri buruz.

Irakasleak erabaki dezake ariketa horietako bakarra edo denak erabiltzea, gelako hainbat taldetan banatuz.

Ikasleak berak ere erabaki dezake ariketa guztiak egitea eta, hala, behin zortzi saioko modulua amaitu ondoren, beste lau-bost aldiz esperimenta dezake bere gisara.

ZUZENKETA TXANTILLOIA

Saio gehienek zuzentzeko txantiloia izango dute. Saio batzuetan eskolako orduetan erabiliko dira eta beste batzuetan etxean landuko dira. Modu horretan ikasleak elkarren lanak baloratzeko irizpide komunetatik abiatuko dira, eta egindako lanaz hausnartzen lagunduko zaie.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

5.1.2. MINTEGI OSORAKO MATERIALA

GLOSATEGIA IKASLEAREN ESKU JARRIKO DA LEHEN SAIOAREN ONDOREN

Ikasleak bezala, irakasleak erabiliko du ahoz eman dezakeen informazioa zabaltzeko.

Glosategi horretan euskarari buruz (lexikoaz, sintaxiaz edo semantikaz) ikuspegi komunikatiboa garatzeko moduko artikulua txertatu dira, gehienak, internetik jasoak. Beraz, euskarari buruzko hausnarketan, hizkuntzaz pentsatuz hizkuntzaren erabilera hobetu ahal izango dute.

Glosategi horretan erretorikari, pragmatikari eta estilistikari buruzko artikulua ere badira, eta ahozko zein idatzizko euskal literaturaren eta pentsamenduaren historiako adibidez hornituak izango dira. Horrekin teorizatzen eta hausnartzen erakustez gain, curriculumaren euskal dimentsioa indartu ahal izango da.

ANTOLOGIA

Ikasleak hasieratik izango du eskura.

40 testuz osatutako antologia da. Genero askotako testuak dira. Euskaraz idatziak eta kasuren bat euskaraz emanak, curriculumaren euskal dimentsioa indartzeko aforismo, errefrau, gutun, iritzi-artikulu, saiakera, editorial, filosofia testu, liburu-iruzkin...

Horren ondoren euskal literaturatik hartutako hainbat liburuz eta estekaz osatutako bibliografia ere badakar.

- Ikasle bakoitzak gelan gehien gustatu zaion iritzia eredugarri iruditzen bazaio, beste 20-30 testurekin zabaldu daiteke.
- Ikasle bakoitzak zortzi astetan irakurritako testu banaz osa dezake.

Helburua, saio amaieran 100 testu iritzi-emaez osatutako antologia bat egitea da.

BIBLIOGRAFIA ETA ESTEKAK

Ikasleen eskura izango da hasieratik. Ikasle bakoitzak behar duenaren arabera (hizkuntza indartu, estilistikaz gehiago ikasi) erabili ahal izango du.



6. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Mintegi honen ebaluazio irizpideak bat datoz Batxilergoko hautazko euskal literaturaren ikasgaiak ematen dituen hamar irizpideekin. Zortzi saioko mintegi honek ez du, hala ere, helburu eta eduki guztietan sakontzen.

Ebaluazio irizpide horiek guztiak kontuan hartu ditzake irakasle batek gehienezko nota bat gaintzen duten ikasleekin: bikain edo matrikula jarri nahi badu eta, hortaz, erreferentzia egiten zaie mintegi horren ebaluazio irizpideetan.

Mintegi honen helburu nagusia, baina, iritzia idatziz ematen erakustea da, eta ikasketa hori baliagarri izatea bere ibilbide akademikoan zein profesionalean: testu-iruzkinak egiteko orduan, ikerketa lanak planifikatzeko orduan, iritzia emateko molde bat baino gehiago erakutsiz. Eta horretarako, ikasleak saioz saio bere esku izango duen zuzenketa txantiloia erabiliz, bere lanak zuzentzen erakutsiko zaio. Horiek horrela, arestian aipatutako hainbat ebaluazio irizpide emateaz gain, sorkuntza baliabideen erabilera irrazional eta arrazionalak ezagutaraziko zaizkio.

Alde horretatik, mintegi honetan ebaluatzeko orduan hainbat alderdi hartuko da kontuan:

1. Egindako lan bakoitzari buruzko ebaluazioa, saio bakoitzaren txantiloia erabera ebaluatuko dena, eta ikaslea bera protagonista ezinbestekoa izango duena.

2.- Mintegi osoaren ebaluaketa, non irakasleak ikuspegi globalagoa izango duen eta kontuan hartuko duen.

2.1. Ikasleak mintegiak iraun duen bitartean egindako lan pertsonala.

2.2. Ikasleak mintegiak iraun duen bitartean maila idatzian izan duen garapena.

2.2.1. Ikasleak mintegia gaintzeko saio batetik bestera idatziz eskatutako lan guztiak aurkeztu beharko ditu mintegia gaintutzat emateko.

2.2.2. Ikasleak mintegian goren maila batera iristeko beste jarduera hauek ere eginak beharko ditu:

2.2.2.1. Eguneroko bat burutu, non irakurri dituen lan osoei buruz edo iritzi emateei buruz, edo beste adierazpen artistikoei buruz idaztea helburu garrantzizkoa den.

2.2.2.2. Eguneroko bat burutu, non Antologian agertzen diren testuak irakurri dituela adierazi beharko duen, maila pertsonalean.

2.2.2.3. Mintegian oinarrian dagoen antologia zabaltzeko lanak proposatuko ditu, era arrazoitu batean.

2.3. Ikasleak bere lanketa pertsonalean mintegi osoan izan dezakeen garapena.

Mintegi osoaren ebaluaketarako hauek dira kontuan hartuko diren adierazleak eta irakasleak horiek ebaluatzeko bere esku izango dituen euskarriak.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

HELBURUAK (Batxilergoko ebaluazio irizpideen arabera)	ADIERAZLEAK	IRAKASLEAK NON-ZER BALORATUKO DUEN
1. Euskarazko literatura gozatzeko, mundua ezagutzeko eta nortasun pertsonala, kulturala eta soziala eratzeko bitarteko edo tresna bezala erabiltzea.	1.1. Literatura-lanak maiz irakurtzea.	Antologiako testu guztiak irakurri dituen frogatzea.
	1.2. Irakurgaiak norberaren irizpideen arabera aukeratzea.	Antologiarako proposatu ote du berak hautatutako testurik?
	1.3. Testuen edukia interpretatzea norberaren bizipenen eta literaturari buruzko ezagupenen arabera.	ETXEKO LANETAN: Antologian proposatutako testuetatik edo bestelako liburuetatik egindako erreferentzien egokitasuna.
	1.4. Proposatutako lanak edukia ulertuz irakurtzea eta ikasitakoa ulermen hori hobetzeko erabiltzea.	ETXEKO LANETAN: Proposatutako gaiarekin lotu duen iritzia.
	1.5. Irakurtzeak norberaren nortasuna eta munduaren gaineko ulermena aberasten laguntzen duela ulertzea.	ETXEKO LANETAN: Norbere iritzian eta emandankoaren artean kotraesanik, bat etortzerik... dagoen ikustea.
2. Ikasitakoaren arabera, euskarazko lan osoak eta pasarte esanguratsuak aztertzea eta haien iruzkina egitea, eta lanon edukia interpretatzea sortu zireneko testuinguruari buruz. Konbentzio soziokulturalen eta lanok sortu zituen gizartearen arteko erlazioak azaltzea.		EGUNEROKOA: Egunerokoa egitea ezinbestekoa ez den arren, egiten dutenen artean proposatzea. BIBLIOGRAFIAan aipatutako lan osoei buruz iruzkinak proposatzea, garai eta gizarte-kezkekin zuten hausnarketa.
3. Ikasitakoaren arabera, euskarazko lan osoak eta pasarteak aztertzea eta haien iruzkina egitea, eta lanon edukia interpretatzea literaturako gai eta generoei eta garai eta egileei buruz.	3.1. Testuetan agertzen diren gai eta ikuspegi zehatzak aurkitzea.	EGUNEROKOA: Egunerokoa egitea ezinbestekoa ez den arren, egiten dutenen artean proposatzea. BIBLIOGRAFIAan aipatutako lan osoei buruz iruzkinak proposatzea irakurri dituzten beste lan



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

		batzuekin edo antologian agertzen direnekin harremanetan jarritz.
	3.2. Testuen iruzkin arrazoitua egitea, testuaren oinarritzko ezaugarriak eta erabilitako baliabide estilistikoak identifikatuz.	ETXEKO LANETAN: proposatutako ariketa eta irakurketetan talde-lanean emandako argudioak.
	3.3. Garaiei, lanei eta egileei buruz ikasitakoa aplikatzea.	Proposatutako gai bati buruz beste garai bateko topiko batzuekin idazteaz proposatu dena burutu den ala ez.
4. Literaturak sortutako mitoen eta arketipoen eragina eta euskal eta espainiar literatura.		
5. XX. mendeko euskal literaturako idazlan esanguratsuak lotzea bestelako arte-adierazpenekin, eta adierazpen-lengoaiei artean dagoen lotura edo aldea aztertzea.		
6. Euskal literaturako testuak elkarren artean alderatzea, baita literatura unibertsaleko testuekin ere; testuon eraginak eta haien artean dauden parekotasunak eta aldeak azaltzea.		EGUNEROKOA irakurketa-liburu gisara erabiliz, ikasleak dituen erreferentziak aipatzea eta lana baloratzea.
7. Literatura-lanen balorazioak egitea, ahoz nahiz idatziz, konturatuz lanok ideia eta sentipen kolektiboen topaleku eta gure esperientziak zabaltzeko tresna direla.	7.1. Irakurritako literatura-lanei buruzko iritzia ematea, ahoz nahiz idatziz.	GELA BARRUKO JARDUERETAN.
	7.2. Norberaren iritzia arrazoitzea.	ETXEKO LANETAN.
	7.3. Irakurritako lanetan agertzen diren sentipen, pentsaera eta balio kolektiboez jabetzea.	GELA-BARRUKO JARDUERETAN. ETXEKO LANETAN. ANTOLOGIARAKO PROPOSATUTAKO LANETAN.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

	7.4. Literaturaren aurrean jarrera ireki eta kontzientea, eta harekiko jakin-mina.	EGUNEROKOA, IRAKURKETA-KOADERNO GISARA.
8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzea, literatura-gaiei buruzko informazioa bilatu eta aditzera emateko.	8.1. Informazioa modu autonomo eta kritikoan bilatzea.	ETXEKO LANETAN.
	8.2. Informazio egokia aukeratzea eta fidagarria den jakitea.	ETXEKO LANETAN.
	8.3. Erabilitako iturriak aipatzea.	ETXEKO LANETAN ANTOLOGIARAKO PROPOSATUTAKO TESTUETAN.
	8.4. IKTak erabiltzea informazioa aditzera emateko.	PLATAFORMAN.
9. Elkarrekintza erabiltzea irakurritako testuak ulertzeko eta ezagutza sortzeko.	9.1. Modu aktibo eta egokian eta gogoeta eginez parte hartzea, literatura-gaiei buruzko elkarrekintzetan.	GELAKO JARDUERETAN.
	9.2. Irakurritako testuei buruz norberak duen iritzia ematea.	ETXEKO LANETAN. GELAKO JARDUERETAN.
	9.3. Askotariko ikuspegiak alderatzea eta norberarena berrikustea.	ETXEKO LANETAN. GELAKO-JARDUERETAN.
	9.4. Landutako literatura-alderdiei buruzko ondorio arrazoituak ateratzea, eta gai izatea ondoriook azaltzeko eta defendatzeko.	ETXEKO LANETAN. GELAKO JARDUERETAN.
10. Idazlan, egile edo beste alderdiren bati buruzko azterketak eta iruzkinak egitea, ahoz nahiz idatziz, alde	10.1. Hainbat iturri kontsultatzea eta beharrezko informazioa aukeratzea.	ETXEKO LANETAN GELAKO JARDUERETAN. ANTOLOGIARAKO PROPOSAMENETAN.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

aurretik jarraikiz erabiliz.	eskemarri eta IKTak	
	10.2. Edukia egituratzea, aldeztu aurretik finkatutako eskemari jarraikiz.	ETXEKO-LANETAN SAIO BAKOITZEKO ZUZENKETA TXANTILOIETAKO ERANTZUNEN ARABERA.
	10.3. Literatura-lanaren egitura orokorra zein den jakitea.	EGUNEROKOA IRAKURKETA-KOADERNO GISARA ERABILIZ.
	10.4. Erabilitako hizkuntza-baliabideak zein diren jakitea.	GELAKO JARDUERETAN SAIO BAKOITZEKO ZUZENKETA TXANTILOIETAKO ERANTZUNEN ARABERA.
	10.5. Hizkuntza-maila eta literaturako terminologia egokiak erabiltzea.	GELAKO JARDUERETAN SAIO BAKOITZEKO ZUZENKETA TXANTILOIETAKO ERANTZUNEN ARABERA.
	10.6. IKTak erabiltzea, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua egiteko eta zuzentzeko.	ETXEKO LANETAN SAIO BAKOITZEKO ZUZENKETA TXANTILOIETAKO ERANTZUNEN ARABERA ORTOGRAFIA ZUZENKETAK EGINAK DITUEN FROGATZEA
	10.7. Norberak egindako lanak berrikustea, koherentzia eta kohesioa hobetzeko eta zuzenketak hobeto egiteko.	ETXEKO LANETAN SAIO BAKOITZEKO ZUZENKETA TXANTILOIETAKO ERANTZUNEN ARABERA ORTOGRAFIA ZUZENKETAK EGINAK DITUEN FROGATZEA.
	10.8. Lana modu autonomoan planifikatzea.	EGUNEROKOAN ETXEKO LANETAN ANTOLOGIA- PROPOSAMENETAN. IKASLEAK MINTEGI- AMAIERAN AURKEZTU DUEN LANA BEGIRATZEA.



7. EDUKIEN ZUHAITZA

1. Teoria. Atariko saioa. Iritzia emateko moldeak

- 1.1. Gelako jarduera. Iritzi emaile ona izango ote naiz?
- 1.2. Etxeko lana. Osatu gai-zerrenda bat, zeuk iritzia emateko modukoa
- 1.3. Bibliografia labur bat
- 1.4. Glosategia

2. Teoria. Iritzia eman: Iritzi-artikuluei buruz teoria antolatzen hasi jarduera batzuen bidez

- 2.1. Gelako Jarduerak
- 2.2. Etxeko lana
- 2.3. Glosategia

3. Teoria. Garapena: sormen estrategiak garatu jarduera batzuen bidez

- 3.1. Gelako Jarduerak
- 3.2. Etxeko lana
- 3.3. Ariketak
- 3.4. Saio honetarako zuzenketa txantiloia
- 3.5. Glosategia

4. Teoria. Lehen paragrafoa idazteko urratsak ematen ikasi jarduera batzuen bidez

- 4.1. Gelako Jarduerak
- 4.2. Ebaluazio jarduera. Aurreko astean idatzitako lehen paragrafoak aztertu eta zuen iritzia eman
- 4.3. Ariketak eta Etxeko lana
- 4.4. Glosategia

5. Teoria. Garapena: Ideiak lotu, eta hariaz pentsatu

- 5.1. Ariketak eta Etxeko lana
- 5.2. Bibliografia eta loturak
- 5.3. Glosategia



6. Teoria. Azken paragrafoa

- 6.1 Gelako Jarduerak
- 6.2. Etxeko lana
- 6.3. Ariketak
- 6.4. Saio honetako zuzenketa txantiloia
- 6.5. Glosategia
- 6.6. Antologia

7. Teoria: Izenburua eman

- 7.1. Jarduerak
- 7.2. Glosategia

8. Teoria: Testuen zuzenketa

- 8.1. Jarduerak
- 8.2. Saio honetako zuzenketa txantiloia
- 8.3. Glosategia



8. BIBLIOGRAFIA ETA LOTURAK

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *IVAPeko estilo liburua*. 2005, HAEE-IVAP. Gasteiz.

http://www.ivap.euskadi.net/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/es_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Administrazioa euskaraz. Argi idazteko bideak*. 2003, HAEE-IVAP. Gasteiz.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. 2003, HAEE-IVAP. Gasteiz.

Euskal Herriko Unibertsitatea. *Testu mailako loturak: lokailuak eta diskurtso markatzaile batzuk*. EHU. www.ehu.es/seg/morf/5/19

ARRASATE, Manu. EITB *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*. 1992, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea.

CASSANY, D. *La cocina de la escritura*. 1995, Anagrama.

CASSANY, D. *Tras las líneas*. 2006, Anagrama.

EUSKALTZAINDIA. *Literatura terminoen hiztegia*.

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_list&Itemid=474&search=1&lang=eu

GARCIA AZKOAGA, Ines M^a. "Kohesioa ikasleek idatzitako iritzi gutunetan. Zenbait testu aztergai". *Ikastaria*, 14, 55.-69. or. 2005, Eusko ikaskuntza.

IDIAZABAL, I. eta beste. *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. 1998, Arabako Foru Aldundia.

IZAGIRRE, K. eta beste. *BERRIA Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria bilduma <http://www.berria.info/estiloliburua/>

LARRINGAIN, L. M. *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboan eta argudiapen-testuan*. 1995, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea.

MORENO, Victor. *Diccionario de escritura: reflexiones y técnicas*. 2005, Pamiela.

PETRIRENA, P. *Morfonsintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. 2011, Patxi Petrirena.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/MORFOSINTAXIA_PDFa.pdf

EUSKALTZAINDIA, Arauak.

RODARI, G. *Gramática de la fantasía*. 1999, Del Bronce.

QUENEAU, R. *Estilo ariketak*. 2005, Igela. Itzulpena: Xabier Olarra.



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

ZUBIMENDI, J. R. *Ortotipografia*. Joxe Ramon Zubimendi. 2004, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_librua/ortotipografia.pdf



IRITZIA EMAN: GIDA DIDAKTIKOA

9. EGILEAK

Tere Irastortza Garmendia.

Euskal Filologia eta Filologia hispaniarretan lizentziatua.

Idazlea (www.tereirastortza.com)

Bergarako IDAZLE ESKOLA gradu-ondokoaren sortzailea, zuzendaria eta irakaslea.

Itziar Gomez Sarasola

Idazle Eskolako graduondokoa. Euskaltzaindiako D titulua.

Kazetaria. Gidoilaria, aktore zuzendaria.

Bere lanak batez ere (www.idazten.com orrian)

Bergarako IDAZLE ESKOLAKO irakaslea.